ERAKUNDE HORNITZAILEEN KODE ETIKOA

GARBIKER MP. A.B., S.A. enpresaren asmoa da bere jokabidea eta harekin lotutako pertsonena, balio-kateko partaide guztiena barne, behar bezala betetzea eta bat etortzea indarreko legeriarekin eta gobernu korporatiboko sistemarekin, baita oro har onartutako printzipio etikoekin eta erantzukizun sozialeko printzipioekin ere.

Horregatik, Erakunde Hornitzaileen Kode Etikoa landu du, eta GARBIKERi zerbitzu edo hornidura eman nahi dion erakunde orok onartu eta bere egin beharko du. Kode horren oinarrizko printzipioak honako hauek dira:

Portaera etikoa: GARBIKERen erakunde hornitzaile orok konpromisoa hartzen du merkataritza-harremanak garatzeko, enpresa-etikaren eta kudeaketa gardenaren printzipioei jarraiki.

Lan-praktikak: GARBIKERen erakunde hornitzaile orok konpromisoa hartzen du nazioartean onartutako giza eskubideak eta oinarrizko lan-eskubideak errespetatzeko, bere eragin-eremuaren barruan.
Laneko osasuna eta segurtasuna: GARBIKERen enpresa hornitzaileek konpromisoa hartzen dute lan-ingurune segurua eskaintzeko, laneko arriskuen prebentzioaren arloan ezarritako baldintzak betez.

Gaikuntza eta gaitasuna: GARBIKERen erakunde hornitzaile orok eman beharko dizkie bere langileei kontratatutakoaren arabera lan egiteko behar diren prestakuntza eta baliabideak, eta erantzun beharko du edozein kalte edo galerengatik, baldin eta kalte edo galera horien erantzukizuna egitez edo omisioz egotzi ahal bazaio, bereziki horiek saihesteko prebentzio-neurri egokiak hartu ez izanaren ondorioz.

Ingurumena: GARBIKER M.P.A.B. S.A.k ingurumena kudeatzeko ISO 14001 sistema du ezarrita. Horrek gutxieneko baldintza batzuk ezartzen dizkie erakunde hornitzaileei, eta nahitaez bete behar dituzte, ingurumena babesteari dagokionez, gure enpresari zerbitzu edo produktu bat eman ahal izateko. Printzipio horiek HORNITZAILEEN ETA AZPIKONTRATISTEN INGURUMENEKO BETEKIZUNEN dokumentuan daude jasota, eta erakunde hornitzaileek badaukate horien berri.

Zerbitzuen kalitatea eta segurtasuna: GARBIKERen enpresa hornitzaile guztiek konpromisoa hartzen dute etengabe hobetzeko emandako produktuen eta zerbitzuen kalitatea eta segurtasuna bermatzeko informazioaren tratamenduan.

Azpikontratazioa: GARBIKERen enpresa hornitzaileek ziurtatzen dute beren erakunde laguntzaileek eta azpikontratistek baldintza horiek betetzen dituztela.

Informazioaren tratamendua: GARBIKERen erakunde hornitzaile guztiek konpromisoa hartzen dute eskura duten informazioa behar bezala tratatzeko, kontratatutako zerbitzua era egokian betetzeko.

Opariak eta gonbidapenak: erakunde hornitzaileek ezin izango diote, inola ere, GARBIKER MP. A.B., S.A. enpresari oparirik edo gonbidapenik eman beren jarduera egiten duten bitartean.

GARBIKER M.P. A.B., S.A.

2022ko uztaila

CÓDIGO ÉTICO DE ENTIDADES PROVEEDORAS

GARBIKER MP.A.B., S.A. aspira a que su conducta y la de las personas vinculadas a ella, incluidas todas las partícipes de la cadena de valor, respondan y se acomoden, además de a la legislación vigente y al sistema de gobierno corporativo, a principios éticos y de responsabilidad social de general aceptación.

Por ello ha desarrollado un Código Ético de Entidades Proveedoras que toda entidad que aspire a prestar un servicio o un suministro a GARBIKER debe aceptar y asumir como propio. Los principios fundamentales de dicho Código se recogen a continuación:

1. Comportamiento ético: Toda entidad proveedora de GARBIKER se compromete a desarrollar las relaciones comerciales atendiendo a principios de ética empresarial y gestión transparentes.

2. Prácticas laborales: Toda entidad proveedora de GARBIKER se compromete a respetar la protección de los derechos humanos y laborales fundamentales, reconocidos internacionalmente, dentro de su ámbito de influencia.

3. Salud laboral y seguridad: Las empresas proveedoras de GARBIKER se comprometen a proporcionar un entorno laboral seguro, cumpliendo los requisitos establecidos en materia de prevención de riesgos laborales.

4. Capacitación y competencia: Toda entidad proveedora de GARBIKER deberá dotar a su personal de la formación y los medios necesarios para realizar su trabajo conforme a lo contratado, y responder por cualquier daño o perjuicio cuya responsabilidad le sea imputable por acción u omisión, especialmente como consecuencia de no haber adoptado las medidas preventivas oportunas para evitarlos.

5. Medio ambiente: GARBIKER M.P. A.B., S.A. tiene implantado el Sistema de gestión ambiental ISO 14001 en cumplimiento del cual existen unos requisitos mínimos que aplican a las entidades proveedoras y que estas deben cumplir en lo referente a la protección del Medio Ambiente para poder suministrar un servicio o producto a nuestra empresa. Dichos principios se encuentran recogidos en el documento de *REQUISITOS AMBIENTALES DE PROVEEDORES Y SUBCONTRATISTAS* que también son del conocimiento de las entidades proveedoras.

6. Calidad y seguridad de los servicios: Todas las empresas proveedoras de GARBIKER se comprometen a potenciar la mejora continua en la calidad de los productos y servicios suministrados y la seguridad en el tratamiento de la información.

7. Subcontratación: Las empresas proveedoras de GARBIKER aseguran el cumplimiento de estos requisitos por parte de sus entidades colaboradoras y subcontratistas.

8. Tratamiento de información: Todas las entidades proveedoras de GARBIKER se comprometen a realizar un correcto tratamiento de la información a la que tengan acceso para el correcto desempeño del servicio para el que fueran contratadas.

9. Regalos e invitaciones: Las entidades proveedoras no podrán bajo ninguna circunstancia dar a GARBIKER MP.A.B., S.A. o su regalos o invitaciones en el desarrollo de su actividad.

GARBIKER M.P. A.B., S.A.

Julio 2022